

Obras en Domingo de Sautu
Euskara erabileraren ikerketa
Zuiako Dantza Taldea, Arabako txapeldunak
Virgen de Oro eskolako 'Jolastera!' programa
El Ayuntamiento aprueba el presupuesto de 2017
Memoria Historikoa aldarrikatzeko Jardunaldiak

primavera 2017ko udaberria

ZUBIA

Zuia udalerriko aldizkaria



Simulación zona centro de Murgia tras las obras.



Zuia iruditan_Zuiaphoto

3 El Valle de Zuia en los años 30-40



erreportajea_reportaje

4 El Ayuntamiento aprueba el presupuesto de 2017
Alcanza los 5'5 millones y cuenta con aportaciones de las asambleas vecinales



berriak_noticias

6 • Nueva imagen y nuevas infraestructuras para Domingo de Sautu

7 • Obligatoriedad de mantener libre de setos y arbolado la vía pública

7 • Zuiako Dantza Taldea, Arabako Fandango eta Arin-Arin lehiaketako txapelduna

8 • Memoria Historikoa aldarrikatzeko Zuiako Jardunaldiak

10 • Euskara dakitenen eta erabiltzen dutenen artean alde handia dago Zuian



atalak_secciones

12 • Liburuak_libros

13 • Zuiako Ikastetxe publikoak:
Virgen de Oroko Jolastera! programa


14 • ZubiAgenda

15 • Bailarako taldeak_ Zuiako Dantza Taldea

16 • Zuk egiten duzu Zubia_ Tú haces Zobia



Fotos del libro 'Los paseos de la memoria. Recuperando la memoria histórica de Zuia.'



Zuia hacia 1930. Imágenes de 'Los paseos de la memoria. Recuperando la memoria histórica de Zuia'

El primer trabajo fruto de la beca Eugenio Murgía, que se presentará en las I Jornadas de la Memoria Histórica de Zuia. Más información en pág. 8

El Ayuntamiento aprueba el presupuesto de 2017, que alcanza los 5'5 millones

- . Zuia dispondrá de 2 millones de euros más que en 2016
- . El presupuesto cuenta con aportaciones recogidas en las asambleas vecinales



laz baino 2 milioi euro gehiago izango ditu aurten Zuiak, bere udalbatzak 2017rako onartutako aurrekontua 5'5 milioikoa baita. Garrantzizko proiektuak aurrera eramateko balioko du horrek: batetik, Paularren eraikinaren erosketaren 2. ordainketa egiteko; bestetik, Domingo de Sautu kaleko azpiegituren berrikuntzari ekiteko. Partida berrien artean, aipatzekoak dira etxebizitza alokatzeko diru-laguntza eta behar bereziak dituzten ikasleentzat hezkuntza-profesionalak kontratazeko laguntzak.

Las cuentas públicas de 2017 vuelven apostar por mantener los servicios públicos y este año además van a permitir afrontar nuevos proyectos. 'A pesar del esfuerzo que suponen estos presupuestos, no hemos hecho ningún recorte y los vemos como un instrumento eficaz para continuar respondiendo a las necesidades de la ciudadanía', ha explicado el alcalde, Unai Gutiérrez Urkiza. Para sacar adelante su proyecto de presupuestos, los 4 concejales del equipo de gobierno de EH Bildu han contado con los votos a favor del PNV. El representante del PP se abstuvo, mientras que la asociación local ZBG votó en contra, porque no estaba de acuerdo con algunas partidas.

El presupuesto de este año alcanza los 5'5 millones de euros, dos más que en 2016. Este

incremento se debe a la ejecución en 2017 de 2 inversiones de gran montante.

Por un lado, el 2º pago (725.000 €) por la compra del convento de los Padres Paúles, donde se ubicarán los centros escolares públicos del municipio; una compra subvencionada al 50% por Diputación.

Por otro, la obra de renovación de infraestructuras de la calle Domingo de Sautu (1.500.000 €, de los que Diputación subvenciona 1.250.000 €). Supondrá la sustitución de canalizaciones y el soterramiento de servicios en el tramo que va entre la Cruz Roja y el límite con Amezaga. La previsión es empezar los trabajos en la última parte del año y se aprovechará la obra para convertir el centro de Murgia en un espacio semi-peatonal (más información en pág. 6).

Los presupuestos de 2017 recogen también otros programas fundamentales para el desarrollo del municipio. Así se dará continuidad al cambio del modelo energético, tomando medidas en post de la máxima eficiencia. Dentro de la remodelación de la Casa Consistorial, se actuará en la 2ª planta para reformar la sala polivalente y trasladar la OCA (Oficina Comarcal Agraria) a ese piso, garantizando la accesibilidad. También se contratará este año la redacción del Plan General de Ordenación Urbana, que marcará la planificación urbanística del municipio. Igualmente, se encargará el proyecto de ampliación de las instalaciones deportivas de Palatu; en este caso, el Ayuntamiento buscará una fuente de financiación exterior (Plan Foral, fondos europeos) para abordar la obra.

En palabras del equipo de gobierno, 'son unos presupuestos confeccionados con las aportaciones de todos y todas las zuarras, para poner solución a los problemas de Zuia'. Como ha ocurrido en los últimos años, se organizaron sendas reuniones en los once pueblos que forman el municipio para explicar el borrador de presupuestos y recoger las sugerencias y aportaciones de las personas que asistían.



Partidas de nueva creación

Igualdad

La atleta zuirra Elena Loyo contará con un patrocinio por importe de 1.800 €, igual que ocurre con el ciclo-crossista Javier Ruiz de Larrinaga.

Ayuda a familias necesitadas

Es una subvención concreta y puntual, para familias del municipio que en un momento determinado puedan atravesar una situación económica complicada. Servirá para afrontar, por ejemplo, el pago del alquiler de la vivienda o situaciones de pobreza energética.

Alquiler de viviendas

El Ayuntamiento quiere fomentar el alquiler de las casas/pisos vacíos en el municipio, de modo que los vecinos y vecinas puedan seguir residiendo en el valle. Para ello, ha consignado 20.000€ para un programa de ayudas que se concederán siempre bajo una serie de requisitos (precio máximo de alquiler subvencionable; ingresos máximos por parte de la persona solicitante; formalización de un contrato...). En los próximos meses se elaborará la ordenanza reguladora.

Formación para salir del desempleo

Se trata de ayudas económicas dirigidas a aquellas personas que, habiéndose quedado en paro, deciden formarse para salir de esa situación. Se podrán solicitar para cubrir una parte de los gastos de los estudios (el importe de los cursos, gastos de transporte...). La cuantía del programa es de 10.000 €

Aprendizaje escolar

La continua colaboración con los centros del Valle ha puesto de manifiesto que la oferta del Departamento de Educación para escolares con necesidades específicas es insuficiente. Por ello, se ha creado una línea de ayudas para contratar especialistas (logopedas, psicólogos, pedagogos...) que prestarán sus servicios en los propios centros. Así los escolares no tendrán que desplazarse y nadie que lo necesite se quedará sin esa atención por razones económicas. Serán las propias AMPAS, coordinadas con el servicio de orientación, quienes gestionarán el programa, cuya dotación inicial es de 10.000€.

+ info: Una vez publicado en el Boletín Oficial, puedes consultar el presupuesto municipal en: <http://www.zuia.com/es/ayuntamiento/cuestiones-administrativas/presupuesto/>

Rondará los 2 millones y será la mayor inversión pública de 2017

Nueva imagen y nuevas infraestructuras para Domingo de Sautu

- Se renovarán las canalizaciones de agua y se soterrarán los servicios públicos
- Se aprovechará la obra para unificar las dos plazas de Murgia, dando prioridad a peatones



Simulación zona centro de Murgia tras las obras.

Murgiako Gurutze Gorritik Ametzagako mugaraino doan Domingo Sautu kaleko azpiegiturak erabat berriztatuko dira aurten. Zahartuta daude, fibrozementoa eta guzti dago eta pitzadura asko ere badituzte. Lanak egin behar direla aprobetxatuz, herriko erdialdean, 2 plazan arteko esparruan, oinezkoek lehentasuna izango duen gunen berri bat sortuko da.

El Ayuntamiento ejecutará este año una obra de gran envergadura, tanto por el montante económico – a falta de la definición final del proyecto, rondará los 2 millones de euros-, como por la mejora que representará para los vecinos y vecinas del valle. Se trata de la renovación de las infraestructuras de la calle Domingo de Sautu. El proyecto consiste en sustituir la canalización de agua (obsoleta, de fibrocemento y con problemas de fugas) y soterrar los servicios públicos (electricidad, líneas telefónicas), en el tramo que va desde Cruz Roja al límite con Amezaga. La previsión empezar los trabajos a final de año.

Se aprovechará, además, para intervenir en la zona centro de Murgia, unificando las dos plazas y creando así un espacio que tendrá un carácter más peatonal. La idea es dejar al mismo nivel aceras y carretera, de modo que no haya barreras arquitectónicas; se diferenciará el asfalto del resto de la carretera para trasladar que se trata de un área semi-peatonal y se limitará la velocidad a 20 ó 30 km/hora. Cabe señalar que el Ayuntamiento

convocó una jornada informativa para explicar la propuesta inicial, y que los detalles concretos (tramo donde se va a actuar, tipología de baldosas/asfalto, mobiliario urbano) se están decidiendo entre la corporación municipal, la Diputación y agentes implicados como la Junta de Murgia.

Una vez definido el proyecto definitivo, se convocará una nueva sesión pública para presentarlo antes de su aprobación por el Pleno. Lo que ya se sabe es que la obra traerá la eliminación de los aparcamientos entre la panadería y el convento de las Carmelitas; una actuación exigida por Diputación, debido a la peligrosidad en la zona por el estrechamiento de la calzada y la imposibilidad, en algunos puntos, del paso de 2 vehículos a la vez. Para subsanar la falta de aparcamiento cercano se ha creado un parking en el cruce de Sarria, que se abrirá en cuanto se asfalte. En el resultado final se buscará también tomar medidas para evitar el exceso de velocidad en la calle, una preocupación expresada por la ciudadanía.

Obligatoriedad de mantener libre de setos y arbolado la vía pública

Zuhaitz eta heskaien jabeek, kalea ez inbaditzeko moduan mantendu behar dituzte. Egiten ez badute, Udala arduratuko da eta faktura helaraziko die.

El Ayuntamiento quiere recordar a todos los vecinos y vecinas que deben mantener libre de setos, ramas y cualquier otro elemento vegetal tanto las aceras como el mobiliario público urbano (farolas, postes de la luz, señales). Si no se atiende este requerimiento, se encargará el trabajo a una empresa especializada y se repercutirá el coste en los propietarios que no cumplan con su obligación.



Udalerriko dantzariak koreografia lehiaketa irabazi zuten abenduan Zuiako Dantza Taldea, Arabako txapelduna

Maiatzean Gorbeialdeko Dantza Topaketan ikusteko aukera izango dugu



El 20 de mayo puedes ver a Zuiako Dantza Taldea en Zigoitia. El grupo de las mayores son las campeonas de Álava de Fandango y Arin-Arin.



Dantzazalea bazara, honen berri izan duzu jada. Zuiako Dantza Taldeko helduen taldea irabazle izan zen pasa den abenduan Gasteizen egin zen Arabako VII Fandango eta Arin-Arin Koreografia Lehiaketan. Hemendik, gure zorion beroenak elkarte guztiari eta, jakina!, saria lortu zuten neskei. Taldea pixka bat gehiago ezagutu nahi baduzu, Zubi honetako 15. orrialdean artikulu bat aurkituko duzu.

Era berean, dantzan ikusi nahi badituzu, adi egon, maila handiko hitzordu bat prestaketa-lanetan baitago; lehenengo aldiz, kuadrillako hainbat talde elkartuko dira 'Gorbeialdeko Dantza Topaketan'. Zigoitiko Oketa Alai Dantza Taldeak antolatuta, hurrengo maiatzaren 20an Ondategiko Bengolarra frontoian izango da. Asmoa da eskualdeko taldeen arteko topaketa bat egitea eta euren lana jendaurrean aurkeztea. Momentuz, Zuiako, Urkabustaizko eta Zigoitiko dantza taldeak egongo dira. Gureek ikuskizun ederra eskainiko dute hor ere.

Udalak antolatuta, martxoaren 23tik apirilaren 2ra arte

Memoria Historikoa aldarrikatzeko Zuiako Jardunaldiak



Del 23 de marzo al 2 de abril se celebran en Zuia las Jornadas dedicadas a la recuperación de la Memoria Histórica. Organizadas por el Ayuntamiento, la cita quiere ser un encuentro con las vivencias y los recuerdos de quienes sufrieron la guerra civil y el franquismo. Y un reconocimiento para las víctimas. Porque 'el pueblo que no conoce su historia, está condenado a repetirla'.

Programan aurkituko ditugu, besteak beste, hitzaldi bat, liburu baten aurkezpena eta pegatina erakusketa bat. Horrez gain, Paldarren komentuan, gerra garaian kontzentrazio-esparrua izan zen tokian, monolito bat jarriko da. Udal arduradunek xehetasunak kontatu dizkigute.

- Zergatik jardunaldiak Zuian? Eta zergatik orain? Bada helburu praktiko bat daukate: Zuiako Udalak bultzatutako Eugenio Murgia ikerketa-bekaren lehendabiziko lana gizarteratzea; eta helburu sozialago bat ere bai, hain zuzen ere, aurkeztuko den liburua (bekaren emaitza dena) eragin zuen arrazoi bera: Gerra Zibilak Zuiako udalerrian eta zuiarren izan zituen errealitate ezberdinak bildu eta ahanzturatik ateratzea.

Egia esateko, orain egiten dugu, lehenago egin ez delako. Oso berandu, edonola ere. Nahi izan genuen lekukotza zuzenak jaso, betiko desagertu baino lehen. Hori izan da gure helburu nagusia. Luze jo du idazlana argitaratzeak baina azkenean egin dago eta zuiarren aurrera agertu eta beren esku utzi

nahi dugu.

- Zer espero duzue lortzea? Esan bezala, gerra horren inguruko errealitate ezberdinak jaso nahi izan ditugu Zuiako txikitasunean. Alde batekoena eta bestekoena, baina arreta berezia jarriz galtzaile suertatu zirenen, irabazleen historia egin eta eragina egoten baita.

- Nori zuzenduta daude? Jardunaldion jasotzaile nagusiak zuiarrak dira, oro har, baina bereziki urte haietako oroitzapenik ez duten gazte eta ez hain gazteak. Bide batez, omenaldia egin nahi izan diegu garai haietan bizi eta egoera latz eta gordinek pairatu zutenei. Zer esanik ez, eskerrik bizien eta beroenak emanda zein bere lekukotza eman eta proiektu honetan parte hartu duten guztiei.

- Zertan datza programa? Azken xehetasunak lotzen ari gara eta behin betiko programa udaleko webgunean (www.zuia.eus) aurkitu ahalko da. Edonola ere, hasierako planteamendua hau da:

Martxoak 23: *Eugenio Murgia* bekaren laguntzarekin Yohanna Mendez Rial historialariak idatzitako liburuaren aurkezpena eta berarekin eta Iñaki Egaña historialari eta Euskal Memoria fundazioko presidentearekin hitzaldia. Udaletxeko bilera-aretoan.

Martxoak 24: Frankismo Berankorreko eta Trantsizioaren garaiko pegatzen erakusketa, Fernando Iñigo Aristuk prestatuta. Bi asteburutan egongo da irekita (martxoaren azkenekoan, eta apirilaren lehenengoan). Udaletxeko bilera-aretoan.

Martxoak 25: Paldarren komentuan, monolito bat inauguratuko da gerra-garaiko kontzentrazio-esparru horretan egondako presoiei omen egiteko.

- Bukatzeko, zertarako balio du memoria historikoa errekeratzeak? Jakina da bere historia ez dakien herria errepikatzena kondanatuta dagoela. Uste dugu inportantea dela Zuiako bizilagunek oro jakin dezaten hemen zer gertatu zen horren esanguratsua izan zen garai hartan.



Yohanna Méndez Rial, autora de la primera beca *Eugenio Murgia*

'He recuperado los testimonios para dejar constancia. Y para poder transmitirlos a las siguientes generaciones'

Udalak antolatutako *Eugenio Murgia* ikerketa bekaren lehenengo emaitza idatzi du, 'Oroimenaren Ibilaldiak. Zuiako memoria historikoaren berreskurapena', hain zuzen ere. Antropologoa eta Gizarte Laneko titulata, Yohanna Méndez Rial ikertzailearekin hitz egiten dugu.

Antropóloga y titulada en Trabajo Social, la donostiarra Yohanna Méndez Rial lleva la investigación en la sangre. 'Suelo mirar los boletines oficiales y fue así como me enteré de la beca *Eugenio Murgia* que convoca el Ayuntamiento de Zuia. Propuse un trabajo que recogería los acontecimientos desde 1931, en plena República, hasta 1975, con la Transición'.

'Los paseos de la memoria. Recuperando la memoria histórica de Zuia' es el primer trabajo fruto de la beca, que se presentará en las I Jornadas de la Memoria Histórica de Zuia.

Para documentarse Yohanna se entrevistó con una docena de vecinos y vecinas de Zuia que vivieron la guerra y la postguerra en primera persona, y con Josu Miren Agirregabiria, historiador y miembro de la asociación Sancho de Beurko. Ha recogido también el testimonio de dos personas del campo de concentración que existió en el convento de los Paúles: un represaliado directo, que pasó más de un año encerrado, y la hija de otro preso. 'He hablado con gente de derechas y de izquierdas para plasmar sus realidades. Todos sufrieron'.

Son historias en primera persona que la autora ha querido recuperar 'para que quedase constancia. Para recuperar la memoria histórica antes de que desaparezcan los afectados. Y para poder transmitirla a las siguientes generaciones'. Además de los testimonios orales, parte del trabajo de investigación se ha centrado en el archivo municipal de Zuia. 'Me he leído todas las actas, desde el 31 hasta 1956. Un trabajo intenso, pero muy interesante. En las primeras, por ejemplo, había más desparpajo, más soltura. Pero con el tiempo el lenguaje se fue haciendo más burocrático, más como son las de ahora'. Recuerda incluso varias anécdotas que pueden leerse en los documentos, como una discusión el 12 de agosto del 36: no hacía ni un mes del golpe de estado con el que Franco derrocó el gobierno democráticamente elegido de la II República, corrían los primeros días de la guerra civil que duraría 2 años, 8 meses y 15 días, cuando la corporación municipal se reunió para decidir si mantenían las fiestas o las suspendían. Los zuianos votaron a favor de la celebración.

Soziolinguistika Klusterrak pasa den udazkenean egindako ikerketaren arabera

Euskara dakitenen eta erabiltzen dutenen artean alde handia dago Zuian



2013ko Zuia Euskaraz. Argazkia: Infozuia

El 31% de la población de Zuia es euskaldun (entiende euskera y lo habla) y el 28% cuasi euskaldun (entiende, pero no es capaz de hablarlo). De modo que un 60% de las vecinas y vecinos del municipio es capaz de entenderse en euskera. Sin embargo, según una reciente investigación del Cluster de Sociolingüística, solo un 5,8 % lo utiliza en la calle. Hay, por tanto, una gran diferencia entre el conocimiento y el uso del idioma. Y queda por hacer mucho trabajo como el que, desde hace años, vienen desarrollando el ayuntamiento, los centros escolares, la Gau Eskola y diferentes asociaciones de Zuia. ¡Ánimo pues!

Zuiako Udalak hala eskatuta, Soziolinguistika Klusterrak 2016ko urrian neurtu zuten euskaraz Murgia kaleetan duen presentzia. 20 orduko neurketaren emaitzek herritarren artean euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean alde handia dagoela erakutsi dute.

Zenbat herritarrek daki euskaraz Zuian? Esku artean ditugun azkeneko datuak 2011koak dira. Datu horien arabera, euskaldunak (euskara erabiltzeko gai direnak) herritarren %31 dira, eta ia euskaldunak (euskara erabiltzeko gai ez, baina ulertzeko gai direnak) herritarren %28. Beraz, esan dezakegu Zuiako herritarren %60 inguru dela euskara ulertzeko gai. Datu esanguratsuak, inondik ere, orain hamarkada batzuk udalerriki bizi zuen egoera kontuan hartuta.

2011ko datuak osatzera, datu berriak iritsi dira orain. Beste era batekoak. Soziolinguistika Klusterrak, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, bost urtean behin egiten du, Euskal Herri osoan, euskararen kale-erabileraren neurketa. Neurketa sistema honek badu jada 25 urteko ibilbidea. Hala ere, 2016ko urrian egin da lehenengo aldiz Zuian.

Behaketa zuzeneko teknika


Neurketa egiteko erabiltzen den teknika 'behaketa zuzenarena' da. Hau da: neurtzaileek, ezertxo ere galdetu gabe, herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Horrela, neurketak modu zuzenean jasotzen du behaketa egiten den kaleetan euskaraz duen presentzia. Aurrez esan bezala, neurketa joan den urrian egin zen, Murgia

kaleetan (laginik adierazgarriena, hau da, jende kopuru handiena, bertan behatu ahal izaten delako). Bi astegunetan eta bi asteburutan jaso ziren datuak*, goizez eta arratsalde. Guztira, 622 elkarrizketa behatu ziren eta 1.763 herritarrek osatu dute lagina.

Eta hona hemen neurketaren emaitza orokorra: Behatutako hiztun kopuru osotik, %5,8k erabili zuen euskara. %93,5ek erabili zuten gaztelania, eta %0,4k euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntzaren bat.

Adinaren arabera, gazteak (15-24 urte) izan ziren euskara gehien erabili zutenak (%7,8). Ondoren, umeak (%7), eta, azkenik, helduak (25-60 urte artekoak, %6) eta adinekoak (60 urtetik gora, %1,7). Eta adierazgarria da ondorengo datua ere: umeek, heldurik gabe, elkarrekin daudenean, edo helduak umerik gabe daudenean, erabilerara oso baxua da, baina umeak eta helduak nahasian daudenean, %17raino igotzen da euskararen erabilera.

Azken neurketaren datuek, beraz, garbi adierazten dute alde handia dagoela euskara dakien eta euskara erabiltzen duten jende kopuruaren artean. Datu hauek bide-erakusle dira Zuian euskarari hauspoa emateko helburuarekin lanean ari direnentzat.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra. Zuzeneko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016

(*: 2016ko urriko euskararen kale-erabileraren neurketaren emaitza guztiak jasotzen dituen txostena udalaren webgunean, www.zuia.eus, kontsultatu daiteke).

ZUIAKO BIDE-EGILEAK

Bidea zein den erakutsi digute datuek, baina bidea egin beharra dago. Eta datu horiei buelta ematea epe luzerako erronka da. Zuian euskalgintzaren alde lanean jarduteko gutxieneko egitura bat izateko zortea dugu:

Zuiako Gau Eskola (AEK)

ibilbide luzedun erakundea, Zuiako herritarren euskalduntzeaz eta alfabetatzeaz arduratzen dena. Harremanetarako: 616 18 11 73 (Josu)

Gorbeialdeko Mintzalaguna

eskualdeko mintzalagun egitasmoaren barruan, hainbat lagun elkartzen dira astero, euskaraz jarduteko. Harremanetarako: 662 12 02 09 (Unai)

Udal euskara zerbitzua eta euskara lantaldea

Gorbeialdeko euskara zerbitzuaren bidez, Zuiako Udalak ere hainbat jarduera eta zerbitzu ematen ditu, bere euskara planaren barruan. Euskara lan-taldearen ardura da planaren jarraipena egitea. Harremanetarako: 945 43 01 67 / euskara@gorbeialdea.eus (Manex)

Zuia euskalduna ekimena

euskaldunen aktibazioa lantzeko asmoz, herritar talde batek hasi berri du bere ibilbidea. Harremanetarako: 620 71 60 18 (Monika)



2015eko Korrika. Argazkia: Infozuia


Zuiako liburutegitik GOMENDIOAK_RECOMENDACIONES

Euskaraz

- *Ostegunak*, Jon Arretxerena
- *Ostiralak*, Jon Arretxerena
- *Behi euskaldun baten memoriak*, Bernardo Atxagarena
- *Carlotaren egunkari morea*, Gemma Lienasena
- *Xivaren malkoak*, César Mallorquírena

En castellano

- *Sacrificio a Mólek*, de Asa Larsson
- *El último adiós*, de Kate Morton
- *El libro de los Baltimore*, de Jöel Dicker
- *El silencio de la ciudad blanca*, de Eva García Sáenz de Urturi
- *La mujer del reloj*, de Álvaro Arbina



Gure proposamena

Jakintzaren arbola,

Pio Baroja

Pio Barojak XIX. mendearen amaierako Espainako erretratu eta kritika zorrotza egiten du bere pentsamoldea eta sentimenduak inoiz ez bezala adieraziz. Garai hartako Espainaren eta Madrilaren eguneroko bizitza agertzen du. Ezaugarri biografiko eta soziologikoez betetako liburu honetan, Espainiak jasandako diktaduraren ondoriak adierazten dira; nola aurrerakuntza zientifikoen baita edonolako aurrerakuntzaren kontrako jarrera gogor finkatuta dagoen gizartearen pentsamoldean. Autore honen eleberrri gorenetakoa dugu obra hau.



Libro recomendado

Zorba el griego,

Nikos Kazantzakis

A principios del siglo XX, un joven intelectual griego abandona su monótona y aburrida vida y se dirige a la isla de Creta para explotar una mina de lignito. De camino conoce al bullicioso y misterioso Alexis Zorba. La relación entre estos dos personajes, el primero reflexivo y en búsqueda de la verdad a través de los libros y la razón, y el segundo, Zorba, elemental, básico y en comunión con la vida, da pie a estas maravillosas páginas llenas de reflexiones universales y eternas.



Virgen de Oro eskolako ikasleak jolas tradizionalak berreskuratzen ari dira Ikasteko modu ezberdin bat: jolastera!



La escuela Virgen de Oro te invita a su proyecto más divertido: recuperar los juegos tradicionales para disfrutar del euskera, de una forma diferente.

Garai digitalean gauden honetan, Virgen de Oro ikastetxean jolas tradizionalak berreskuratu dituzte, lagunekin euskaraz disfrutatzeko modu berri bat eskainiz. Proiektua pasa den ikasturtean abiatu zen, patio eremuan hainbat jolas tradizional margotuta. Aurten, ikasleak izan dira proiektuaren protagonista bilakatu direnak, erantzukizun ezberdinak hartuz. 6. mailakoek, esate baterako, kurtso hasieran bideo bat grabatu zuten jolas bakoitzaren nondik norakoak azaltzeko. Bideo hori, pasatu egin zen geroxeago gelaz gela, beste ikasle guztiek jolasen araudia eta jolasteko era ikas zezaten. Horrez gain, ostiralero, haiek arduratzen dira goizeko patioan dinamika horren zeregin guztiez: materialaren banaketa, erregistro orri bat betetzea, jolasen banaketa ziklo bakoitzean, begirale lanak egiten jolasetan sortu ahal diren zalantzak edo tira-birak argituz eta nola ez, euskararen erabilpena bultzatuz.

Baina Virgen de Oro eskolako 6. mailako ikasleak ez dira bakarrik izan parte hartzen. 5. mailakoek, adibidez, behin bideoa ikusi eta jolas bakoitzaren dinamika barneratu ostean, jolas bakoitzaren fitxa tekniko bat sortu zuten bideoan jasotako informazioarekin: zenbat jokalarik behar diren, materiala, araudia... 2. zikloko ikasleek, bien bitartean, ezarri egin dituzte jolasetan parte hartzeko beharrezkoak diren arauak: kideak errespetatzea, euskaraz egitea, jolasen araudia

betetzea... Bukatzeko, lehenengo zikloko lagunek erabaki zuten zer nolako materiala behar zen joko bakoitzean eta nola erabili behar den, ondo mantentzeko. Hori guztia gutxi balitz, Haur Hezkuntzako ikasleak ere parte hartzen ari dira proiektuan. Hainbat jolas praktikatzen ari dira andereñoekin euskaraz disfrutatuz.

Guztiontzako gonbidapena

Baina proiektu horren helburua ez da jolastea bakarrik. Izan ere, gela bakoitzak sari potolo bat du zain euskara erabiliz gero. Horretarako, bakoitzak Euskal Herriko mendi bat du gelan eskegita, eskalatu behar dutena. Honetarako, ordea, ez dituzte mendiko botak jantzi behar; aldapan gora euskararen erabilpenari esker abiatuko dira. Jolasetan euskara erabiltzen duten bakoitzean gometa bat jasoko dute, horiekin mendi gailurrerako ibilbidea betetzen joan behar dira.

“Dagoeneko, martxan dira gure mendizaleak eta orain arte bezala aritzen badira, laster mendi tontorrean izango dira haiek aukeratutako sariaz gozatzeko”, kontatu digute eskolako irakasleek. Aldi berean, bailarako biztanle guztiak animatu gaituzte. “Beraz, badakizue! Euskaraz disfrutatu nahi baduzue gu bezala hurbildu zaitzekete gure ikastetxera! Ikusi duzuenaren arabera, guk badugu guztia prest primeran pasatzeko... Euskaraz bizi eta disfrutatu nahi dugulako!”

ZUBIAGENDA

Dejaldien azken berriak izateko, jo ezazu udalaren webgunera: www.zuia.eus
Kontraktorik esaten ez bada, iragarritako ekitaldiak Murgian egingo dira.
Informazio gehiago eskuratzeko, telefono zenbakira 945 43 01 67 dei dezakezu.

Para estar al tanto de posibles cambios de última hora, consulta la web municipal: www.zuia.eus Si no se indica lo contrario, los actos se celebran en Murgia.
+ info: 945 43 01 67

MARTXOA_MARZO

- **23_JORNADAS MEMORIA HISTÓRICA de Zuia.**
Hasta el 2 de abril.
Más información en pág. 6.



APIRILA_ABRIL

- **2_SUKALDE TXIKI.** Bea Murgia Etxean, 11:00etatik 13:00etara. **Izena eman alde aurretik** 945 43 01 67 (Cristina). Maiatzaren 21ean eta ekainaren 4an ere egingo da.
- **5_IPUIN BEROTIKOAK.** Helduentzako, liburutegian. 20:00etan.
- **7_KORRIKA** eta **GOSARIA.** Gaztetxean.



MAIATZA_MAYO

- **20_GASTEIZKO BIBAT MUSEORA**
Gorbeialdeko Kuadrillako familia irteera + umeentzako tailerra. Info gehiagorako: 945 43 01 67



EKAINA_JUNIO

- **24_ZUIA EUSKARAZ.** Programazioa osorik, laster www.zuia.eus udal webgunean

ETA GAINERA...

- Toti Martinez de Lezea idazlea eta Arantza Valle zientzilaria, laster Zuian. Berdintasun arloak bultzatutako ekimena. Info gehiago, www.zuia.eus udal webgunean.

ZUIAKO DANTZA TALDEA

5 décadas danzando por el Valle



Pasa den mendeko 60. hamarkadan jarri zen martxan. Orditik hona, jende asko pasa da taldetik, guztiak ezinbestekoak. Egun 35 dantzari dira, dantza zaintzeko eta maitatzeko aginduari jarraituz. Errezeta arrakastatsua gainera: abenduan Arabako Fandango eta Arin-Arin Koreografia Lehiaketa irabazi zuten.

-¿Cómo y cuándo nació Zuiako Dantza Taldea?

Llevamos 5 décadas de existencia. En su día hubo un grupo, 'Peña de Oro', con chicos y chicas que iban de romería, bailaban... algunos dantzaris empezaron a animarse hasta organizar el grupo. Éramos aficionados a las dantzak, con la idea de practicar y dar a conocer los bailes tradicionales. Hemos llegado a ser más de 60 personas. Es imposible enumerar a todas las que han pasado por aquí, pero todas ellas han sido imprescindibles en algún momento.

- ¿Cuánta gente sois actualmente?

Algunos menos, pero el espíritu es el mismo; la danza es una parte viva de nuestra cultura y la tenemos que cuidar y querer mucho. Ahora estamos 35 dantzaris y dos profesoras. Tenemos 3 grupos que van desde los 6 hasta los 18-19 años.

- ¿Cuándo y dónde ensayáis?

Nos juntamos los viernes, de 5 a 7'30 de la tarde. Unos grupos ensayan en el Ayuntamiento, en la sala polivalente, y otros en el polideportivo. Y además participamos en encuentros y competiciones, como el Concurso de Coreografías de Fandango y Arin-Arin de Álava,

en diciembre, donde ganamos el primer premio.

- ¡Enhorabuena! ¿Cómo fue ese momento?

Súper emocionante. Cuando oyeron su nombre, las chicas no se lo creían. Nunca imaginamos llegar ahí porque había otros grupos que estaban muy bien, con mucha experiencia en concursos... Para el grupo ha supuesto una inyección de moral impresionante. Es la recompensa a la dedicación y el compromiso de nuestras dantzaris. Y un reconocimiento a nuestra filosofía de trabajo. Aquí cabe todo el mundo, no descartamos a nadie, bailes como bailes, porque no venimos a competir. Y, la verdad, nos costó muchos ensayos, muchas lágrimas... Todo empezó cuando el grupo de mayores, *Bidabari*, nos invitó a bailar con *Korrontzi*, en fiestas del año pasado. Nos preparamos con una dantzari profesional que nos metió mucha caña. Pero quedó un trabajo espectacular, compaginando música y coreografías modernas con elementos tradicionales. Fue un empujón que les vino genial a las chicas, para luego participar en el concurso.

+ **info:** Para informarte lo mejor es acudir a un ensayo. Y también puedes llamar al teléfono 652 75 70 78 (Begoña)



BUKATZEKO 2 KONTU · 2 COSAS PARA ACABAR



1_ Zubia zuk egiten duzu

• TÚ haces Zubia

Kurtso, tailer, festa edo ekintzaren bat antolatu baduzu eta ZUBIAN agertzea nahi? Bidali (word dokumentu batean), 2017ko ekainaren 6a baino lehen, hurrengo helbidera: **zubiaaldizkaria@gmail.com**

Si quieres publicar en el próximo ZUBIA información sobre un curso que organices, una fiesta, una actividad..., mándanos un documento word a zubiaaldizkaria@gmail.com antes del 6 de Junio de 2017.

2_ Zure udalak erantzuten dizu

• Tu ayuntamiento responde

¿Quieres hablar con los representantes municipales? Pasa por el Ayuntamiento, deja tu teléfono y te daremos cita. O, si prefieres, envíanos tu comentario por e-mail:

azuia.general@ayto.araba.eus

Udaleko arduradunekin hitz egiteko, aipatutako e-mailera bidali nahi duzun komentarioa. Edota pasa zaitez udaletxetik, utzi zure telefonoa eta deituko dizugu hitzordua emateko.

Telefonoak

Udaletxea - Ayuntamiento: 945 43 00 05

Kiroldegia - Polideportivo: 945 43 01 57

Osasun Zentroa - Centro Salud: 945 43 00 30

Botika - Farmacia: 945 43 02 36

Guardiako botika - Farmacia de guardia:
636 59 30 13

Gizarte Laguntzailea - Asistente Social:
945 43 04 60

Eguneko Zentroa - Centro de Día: 945 43 03 75

Larrialdia - Urgencias: 112

Turismo bulegoa - Oficina de Turismo:
945 43 04 40

Gorbeialdeko Kuadrilla/

Cuadrilla de Gorbeialdea : 945 43 01 67